

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

215

2/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, Bitariko Transferentzia Batzordeak 2008ko abenduaren 11n hartutako Akordioa onesten duena. Akordio horren arabera, ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferituko zaizkio.

Irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Bitariko Transferentzia Batzordearen Akordio bat onartu zen, eta horren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, akordio horretan bertan zehazten diren formalizazio-izapideak betetze aldera, eta batzorde horren 2008ko abenduaren 11ko Akordioa, ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeari buruzkoa, urtarrilaren 9ko 3/2009 Errege Dekretuak bere horretan jasotzen duela ulertzen denez, dekretu honen helburua honako hau da: batetik, akordio hori onestea eta argitara emateko agintzea eta, bestetik, transferitutako funtzioak esleitzea.

Ondorioz, lehendakariordearen proposamenez, Lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Bitariko Transferentzia Batzordeak ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeko 2008ko abenduaren 11n hartutako Akordioa onestea, urtarrilaren 9ko 3/2009 Errege Dekretuak ezarritako zehaztapenekin. Horrez gain, aipatu errege dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik eta dekretu honen eranskin modura argitaratzeko agintzen dut.

**2. artikulua.**– Transferitutako funtzioak arloko eskumena duten sailei esleituko zaizkie.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 13an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

## Disposiciones Generales

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

215

DECRETO 2/2009, de 13 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 11 de diciembre de 2008, sobre traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones en materia de investigación y desarrollo científico y técnico e innovación.

En virtud de lo establecido en el artículo 2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, y a los efectos del cumplimiento de los trámites de formalización en el mismo requeridos, por entender que el Real Decreto 3/2009, de 9 de enero, recoge en sus mismos términos el Acuerdo del Pleno de la citada Comisión de 11 de diciembre de 2008, sobre traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones en materia de Investigación y Desarrollo científico y técnico e Innovación, el presente Decreto tiene por objeto, de una parte, aprobar dicho Acuerdo y su publicación, y, de otra, adscribir las funciones transferidas.

Por todo lo cual, a propuesta de la Vicepresidenta, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 13 de enero de 2009,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 11 de diciembre de 2008, sobre traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones en materia de Investigación y Desarrollo científico y técnico e Innovación, en los términos establecidos por el Real Decreto 3/2009, de 9 de enero de 2009, ordenando la publicación íntegra del citado Real Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto.

**Artículo 2.**– Las funciones transferidas quedarán adscritas a los Departamentos competentes en la materia.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2009.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

URTARRILAREN 13KO 2/2009 DEKRETUAREN  
ERANSKINA

3/2009 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoko nahiz berrikuntzako funtzioak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora transferitzeari buruzkoa.

Konstituzioaren 149.1.15 artikulua ezartzen duenez, Estatuak dauka modu eskusiboan ikerketa zientifiko eta tekniko oro har sustatu eta koordinatzeko eskumena.

Bestalde, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 10.16 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio ikerketa zientifiko eta teknikoko eskumen eskusiboa, Estatuarekin koordinatuta.

Hortaz, Konstituzioak zein Estatutuak aitortzen dutenez, ikerketa zientifiko eta teknikoari lotutako eskumen eta funtzioek izaera partekatua edo bateratua dute, betiere Konstituzioaren 44.2 artikulua, interes orokorraren mesederako, zientzia eta ikerketa zientifiko nahiz tekniko bultzatzeko botere publikoei ematen dien aginduaren esparruaren barruan.

Nolanahi ere, Estatuari, batik bat, honako hau dagokio: jardueren arteko koordinazio orokorra bermatzea, arloko arauekin bat etorritik, eta sustatze-lana egitea, estatuaren eskumen eskusibo diren beste esparru batzuetan arlo horrek duen interes orokorra aintzat hartuz. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoari, batik bat, bere funtzioak osotasunean betetzea dagokio, eskumenpean dituen jarduerak koordinatuz eta jarduera horien gainean interesa sustatuz.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordeak, 2008ko abenduaren 11n egindako batzarrean, honako akordio hau hartu zuen: ikerketa eta garapen zientifiko nahiz tekniko eta berrikuntza arloko funtzioak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora transferitzea; transferentzia hori gauzatzeko, Gobernuak errege dekretu bidezko onarpena eman behar du.

Ondorioz, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorren xedatutakoa betetzearen, Herri Administrazioetako Ministroak proposaturik, eta Ministroen Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 9an egindako batzarrean eztabaidatu ostean, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordearen osoko bilkurak 2008ko abenduaren 11n egindako batzarrean hartutako Akordioa onartzen

ANEXO  
AL DECRETO 2/2009, DE 13 DE ENERO

REAL DECRETO 3/2009, de 9 de enero, sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de investigación y desarrollo científico y técnico, e innovación.

La Constitución, en su artículo 149.1.15.<sup>a</sup> atribuye al Estado la competencia exclusiva en materia de fomento y coordinación general de la investigación científica y técnica.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su artículo 10.16 atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de investigación científica y técnica en coordinación con el Estado.

Las normas constitucionales y estatutarias reconocen pues, en el marco del mandato asignado a los poderes públicos en el artículo 44.2 del texto constitucional para promover la ciencia y la investigación científica y técnica en beneficio del interés general, que las potestades y funciones asociadas a la investigación científica y técnica tiene un marcado carácter compartido o concurrente.

No obstante, en particular corresponde al Estado asegurar una coordinación general de las actividades en armonía con las normas de dicha naturaleza, así como la promoción o fomento entendidos en función del interés general que proyecta la materia sobre otros ámbitos de competencia exclusiva estatal. Asimismo a la Comunidad Autónoma del País Vasco en particular corresponde ejercer en plenitud sus funciones, coordinando las actividades que dependen de la misma e interviniendo en la promoción o fomento de su interés.

La Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco adoptó, en su reunión del día 11 de diciembre de 2008, un Acuerdo de traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de investigación y desarrollo científico y técnico, e innovación, cuya virtualidad práctica exige su aprobación por el Gobierno mediante Real Decreto.

En su virtud, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta de la Ministra de Administraciones Públicas y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 9 de enero de 2009,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, de traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Co-

da. Akordio horren arabera, ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora transferituko dira. Errege dekretu honen eranskinean transkribatuta dago akordioaren testua.

**2. artikulua.**– Ondorioz, Bitariko Batzordearen akordioan jasotako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzen zaizkio, hain justu ere akordio horretan jasotako baldintza eta zehaztapenekin.

**3. artikulua.**– Bitariko Batzordearen akordioan zehaztutako egunetik aurrera izango du eragina transferentziak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

«Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratuko da errege dekretu hau, aldi berean; eta argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Madriren, 2009ko urtarrilaren 9an.

JUAN CARLOS, ERREGA

Herri Administrazioetako ministroa,  
ELENA SALGADO MÉNDEZ.

#### ERANSKINA

Antonio López Soto eta Begoña Pérez de Eulate González jaun-andreek, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordeko idazkariek, honako hau

#### EGIAZTATU DUTE

Bitariko Batzordeak 2008ko abenduaren 11n egin-dako osoko bilkuran honako akordio hau hartu zuen: ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoko nahiz berrikuntzako funtzioak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora transferitzea, jarraian zehazten den eran:

A) Transferentziaren oinarri diren Konstituzioaren eta Estatutuaren arauei buruzko erreferentzia.

Konstituzioaren 149.1.15 artikulua ezartzen duenez, Estatuak dauka modu esklusiboan ikerketa zientifiko eta tekniko oro har sustatu eta koordinatzeko eskumena.

Bestalde, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 10.16 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio ikerketa zientifiko eta teknikoko eskumen esklusiboa, Estatuarekin koordinatuta.

Hortaz, Konstituzioak nahiz Estatuak aitortzen dutenez, ikerketa zientifiko eta teknikoari lotutako eskumen eta funtzioek izaera partekatua edo bateratua dute, betiere Konstituzioaren 44.2 artikulua zientzia eta ikerketa zientifiko eta tekniko, interes orokorraren

munidad Autónoma del País Vasco en materia de investigación y desarrollo científico y técnico, e innovación, adoptado por el Pleno de dicha Comisión en su sesión del 11 de diciembre de 2008, y que se transcribe como anexo de este Real Decreto.

**Artículo 2.**– En consecuencia, quedan traspasadas a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones que figuran en el acuerdo de la Comisión Mixta, en los términos y condiciones que allí se especifican.

**Artículo 3.**– El traspaso será efectivo a partir de la fecha señalada en el Acuerdo de la Comisión Mixta.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA.– Entrada en vigor.

Este Real Decreto será publicado simultáneamente en el «Boletín Oficial del Estado» y en el «Boletín Oficial del País Vasco», adquiriendo vigencia el día siguiente al de su publicación.

Dado en Madrid, a 9 de enero de 2009.

JUAN CARLOS R.

La Ministra de Administraciones Públicas,  
ELENA SALGADO MÉNDEZ.

#### ANEXO

Don Antonio López Soto y doña Begoña Pérez de Eulate González, Secretarios de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía del País Vasco,

#### CERTIFICAN

Que en el Pleno de la Comisión Mixta celebrado el día 11 de diciembre de 2008, se adoptó un Acuerdo de traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de investigación y desarrollo científico y técnico, e innovación, en los términos que a continuación se expresan:

A) Referencia a normas constitucionales y estatutarias en las que se ampara el traspaso.

La Constitución, en su artículo 149.1.15.<sup>a</sup> atribuye al Estado la competencia exclusiva en materia de fomento y coordinación general de la investigación científica y técnica.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en su artículo 10.16 atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de investigación científica y técnica en coordinación con el Estado.

Las normas constitucionales y estatutarias reconocen pues, en el marco del mandato asignado a los poderes públicos en el artículo 44.2 del texto constitucional para promover la ciencia y la investigación científica y técnica en beneficio del interés general, que las potes-

mesederako, bultzatzeko botere publikoei ematen dien aginduaren esparruaren barruan.

Nolanahi ere, Estatuari, batik bat, honako hau dagokio: jardueren arteko koordinazio orokorra bermatzea, arloko arauekin bat etorriz, eta sustatze-lana egitea, Estatuaren eskumen eskusibito diren beste esparru batzuetan arlo horrek duen interes orokorra aintzat hartuz. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoari, batik bat, bere funtzioak osotasunean betetzea dagokio, eskumenean dituen jarduerak koordinatuz eta jarduera horien gainean interesa sustatuz.

B) Transferitzen diren funtzioak.

Ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoko nahiz berrikuntzako funtzioak transferitzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari; hortaz, Autonomia Erkidegoak honako funtzio hauek bere gain hartzen ditu, bere lurralde-eremuaren barruan:

a) Ikerketa eta garapen zientifiko eta teknologiko, industrial edo beste edozein eratakoa eta berrikuntza arautu, planifikatu, sustatu eta bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenean esparruan.

b) Ikerketa, garapen eta berrikuntzako programa eta proiektuak prestatu, onartu eta gauzatzea eta horien jarraipen eta kontrola egitea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknologikoko eta berrikuntzako jarduerak koordinatzea, betiere Estatuko Administrazioari dagozkion eskumenak errespetatuta.

C) Estatuko Administrazioari bakarrik dagozkion funtzioak.

Ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoan eta berrikuntzan, honako funtzio hauek dagozkio Estatuko Administrazio Orokorrari:

a) Estatuko lurralde osoan, ikerketa eta garapen zientifiko eta teknikoarekin eta berrikuntzarekin lotutako jarduerak orokorrean koordinatzea, Estatuan indarrean dauden koordinazio-arauen arabera.

b) Estatuaren interes orokorreko ekintzei lotutako ikerketa zientifiko nahiz teknikoa bultzatu eta sustatzea.

D) Erakundeen arteko lankidetzak.

1.- Estatuko Administrazioa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa ondoko eremuetan arituko dira lankidetzan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa-azpiegitura sendotzea, Autonomia Erkidegoak ezarritako edo babestutako unitateei lagunduz; horretarako, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntzako proiektuak finkatuko dira, unitate horiek gauzatu beharko dituztenak.

tades y funciones asociadas a la investigación científica y técnica tiene un marcado carácter compartido o concurrente.

No obstante, en particular corresponde al Estado asegurar una coordinación general de las actividades en armonía con las normas de dicha naturaleza, así como la promoción o fomento entendidos en función del interés general que proyecta la materia sobre otros ámbitos de competencia exclusiva estatal. Asimismo a la Comunidad Autónoma del País Vasco en particular corresponde ejercer en plenitud sus funciones, coordinando las actividades que dependen de la misma e interviniendo en la promoción o fomento de su interés.

B) Funciones que se traspasan.

Se traspasan a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones correspondientes a la investigación y desarrollo científico y técnico e innovación por lo que, en consecuencia, la Comunidad Autónoma asume, en particular y dentro de su ámbito territorial, las siguientes funciones:

a) La ordenación, planificación, promoción y fomento de la investigación y desarrollo científico y tecnológico, industrial o de cualquier otra índole, e innovación en el ámbito de las competencias que corresponden a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) La elaboración, aprobación, ejecución, seguimiento y control de programas y proyectos de investigación, desarrollo e innovación.

c) La coordinación de las actividades de investigación y desarrollo científico y tecnológico e innovación que se realicen en el ámbito del País Vasco, sin perjuicio de las facultades que corresponden a la Administración del Estado.

C) Funciones que se reserva la Administración del Estado.

Corresponden a la Administración General del Estado las siguientes funciones en materia de investigación y desarrollo científico y técnico e innovación:

a) La coordinación general de las actividades relacionadas con la investigación, desarrollo científico y técnico e innovación en el conjunto del territorio del Estado, de acuerdo con las normas estatales de coordinación vigentes.

b) La promoción y fomento de la investigación científica y técnica vinculada a las acciones de interés general del Estado.

D) Fórmulas institucionales de cooperación.

1.- La Administración del Estado y la de la Comunidad Autónoma colaborarán en los siguientes ámbitos:

a) Potenciación de la infraestructura investigadora en el País Vasco, mediante el apoyo a las unidades que pueda establecer o tutelar la Comunidad Autónoma, a través de la fijación de proyectos de investigación y desarrollo e innovación a ejecutar por las mismas.

b) Autonomia Erkidegoa edo Estatuko Administrazioa, eremu bakoitzeko erakunde eskumendunen bidez, ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako proiektuak planifikatzen eta gauzatzen elkarlanean arituko dira, bai eta proiektu horiek garatzeko mekanismoetan edo prozeduretan ere.

c) Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean mekanismo egokiak sortuko dira honako helburu hauek betetzeko: informazioa elkarri etengabe ematea, ikerketa, garapen eta berrikuntzan zerbitzuak eta laguntza elkarri emateko bideak ezartzea eta nork bere gain hartutako funtzioak zuzen betetzen dituela bermatzea.

2.– Lankidetzaz bermatze aldera, Koordinazio Batzorde bat sortuko da, osatera paritarioa eta sei kide izango dituen: hiru Estatuko Administrazioak izendatuko ditu, eta, beste hirurak, Euskal Autonomia Erkidegoako Administrazioak. Batzorde horren eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea bi administrazioen arteko hitzarmen baten bidez zehaztuko dira.

E) Transferentziak eragindako aurrekontu-kredituak.

Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora funtzio horiek transferitzeak 2009. urtean estatuari eragiten dion urteko kostu osoa 1. zerrendan zehaztuta dago.

F) Transferentzia indarrean sartzen den eguna.

Akordio honen bidez onartu den transferentzia 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta jasota gera dadin, Madrilen, 2008ko abenduaren 11n, ematen dugu ziurtagiri hau.

Bitariko Batzordeko idazkariak,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO eta  
BEGOÑA PÉREZ DE EULATE GONZÁLEZ.

b) Participación recíproca de la Comunidad Autónoma o de la Administración del Estado, a través de los respectivos organismos competentes en cada ámbito, en la planificación y ejecución de proyectos de investigación y desarrollo científico y técnico e innovación cuya naturaleza lo aconseje, así como en los mecanismos o procedimientos que se establezcan para su desarrollo.

c) Creación entre la Administración del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco de los mecanismos que garanticen una mutua y permanente información, canalicen la recíproca prestación de servicios y apoyo en materia de investigación, desarrollo e innovación y aseguren la correcta gestión de las funciones asumidas.

2.– Al objeto de garantizar la adecuada colaboración, se creará una Comisión de Coordinación, de composición paritaria y constituida por seis representantes: tres designados por la Administración del Estado y tres por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Mediante el oportuno convenio entre ambas Administraciones se establecerán las funciones y el régimen de funcionamiento de dicha Comisión.

E) Créditos presupuestarios afectados por el traspaso.

El coste total anual a nivel estatal asociado al presente traspaso de funciones del Estado a la Comunidad Autónoma en el ejercicio de 2009, se recoge en la relación número 1.

F) Fecha de efectividad del traspaso.

El traspaso de funciones objeto de este Acuerdo tendrá efectividad a partir del día 1 de enero de 2009.

Y para que conste, expedimos la presente certificación en Madrid, a 11 de diciembre de 2008.

Los Secretarios de la Comisión Mixta,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO y  
BEGOÑA PÉREZ DE EULATE GONZÁLEZ.

1. ZERRENDA

Estatuarentzako urteko kostu osoa (2009ko ekitaldiko dotazioak)

21. ATALA.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.

RELACIÓN NÚMERO 1

Coste total anual a nivel estatal (dotaciones ejercicio 2009)

SECCIÓN 21.– Ministerio de Ciencia e Innovación

Zerbitzua	Programa	Kapitulua	Euroak, milakoetan
06	000X	4	418.717,66
06	000X	7	275.157,11
hainbat	463B	6	36.497,94
05	463B	7	372.253,95
01	467C	7	77.106,12
01	467C	8	211.299,55
Guztira			1.391.032,33

<i>Servicio</i>	<i>Programa</i>	<i>Capítulo</i>	<i>Miles de euros</i>
<i>06</i>	<i>000X</i>	<i>4</i>	<i>418.717,66</i>
<i>06</i>	<i>000X</i>	<i>7</i>	<i>275.157,11</i>
<i>varios</i>	<i>463B</i>	<i>6</i>	<i>36.497,94</i>
<i>05</i>	<i>463B</i>	<i>7</i>	<i>372.253,95</i>
<i>01</i>	<i>467C</i>	<i>7</i>	<i>77.106,12</i>
<i>01</i>	<i>467C</i>	<i>8</i>	<i>211.299,55</i>
<i>Total</i>			<i>1.391.032,33</i>